# MOZIOA ARRASATEKO AUTOBUS GELTOKI ZENTRALA RONEON KOKATZEKO

## 1.- Kontsultaren emaitzak ezin dira aintzat hartu.

Azaroaren 11tik- 16ra kontsulta bat burutu zen Arrasaten autobus geltokiaren kokapena hautatzeko. Kokapena zehazteko bi aukera eman zuen Udalak: Zalduspe eta Laubide. Laubidekoa hauteskunde kanpaina batean EhBilduk aurkeztu zuen eta *Zalduspekoa* Maria Ubarretxenaren behin behineko konponbide moduan Garibai kalea "ekobulebarra" bilakatu zenean. Laubideko balizko kokapen zehatza uste dut Kontzesiño pareko berdeguneak izango zirela. Izen bat ere jarri zioten geltoki honi: *Mondraupe*.
Dena dela Kontsulta hasi zenean EhBildu ere, bere hasierako proiketua baztertuz, Zaldusperen alde azaldu zen. Esan daiteke beraz, Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiak Zaldusperen alde zeudela, aho batez bultzatu dutela Zalduspeko aukera alegia.
Horrela, egoera arraro honetan hiritar askok ez zuten ulertzen zergatik joan beharko ziren ezer bozkatzera: dena erabakita zegoela ematen zuen.
Hala ere, aipatutako aste horretan zehar hiritar batzuk bozkatzera joan dira baina hiritar hauek ez dira %30era iritsi, guztira 4268 biztanle soilik. Erroldaren %24 ra ere ez da iritsi. Egia da Zalduspekoaren aukerak botoen %75a jaso duela baina argi dago parte hartze murritz horrekin Zalduspeko aukerak ez duela lejitimitaterik, Arrasateko Udalak berak jarritako lehenengo baldintza ez baitu betetzen.

Edo beste modu batera esanda: Zalduspekoaren aldeko botoa eman duten 3159 pertsona horiek ezin dute baldintzatu mondragoetar gehienok daukagun eskubidea autobus zerbitzu duina, eroso eta erabilgarria izateko.
Kontsulta horren beste elementu negatibo batzuk azpimarratzearren iruditzen zait Udalak Zaldusperen alde positiboak nabarmendu dituela eta Laubidekoaren alde negatiboak. Zaldusperen alde positiboak azpimarratzeko adierazten zuten Zalduspen linea luzeko autobusak hartzeko aukera zegoela. Baina Madrilera doan ALSAko autobusa Eroskiko markesinan hartzen da.

Aukera bakoitzean zenbat diru gastatuko den ere ez dugu jakin.

Eta bukatzeko Udalak zintzo jokatu nahi badu ez dauka zergatik onartu behar gehiagoko barik Zalduspeko aukera. Parteartze murritz horrekin Zalduspekoa aukeratzea ezin da binkulantea izan.

## 2.- Zalduspeko geltokiaren gabeziak

### Erabiltzaileendako

1.- Urruti dago Arrasateko biztanle gehienontzat.
2.- Ez da egia inondik inora "konponbide" honen sustatzaileek esaten dutena: "Eske Arrasaten ez dago distantziarik", badaude eta handiak gainera. San Andresetik gutxieenz ordu laurdeneko ibilaldia eta Uribetik ordu erdi baino gehiago.
3.- Leku apartatua da, Bere ondoan Ospitala baino ez dago
4- Leku isolatua izanik eremu bildurgarri bat da goizeko eta gaueko ordu txikietan
5.- Urruti dagoenez eta leku desegoki batean behin baino gehiagotan ikusten dira gurasoak edo senideak autoarekin joaten direla euren senidea edo laguna jasotzeko.

6.- Genero ikuspuntutik kokapen desgokiagorik ezin asmatu: autobusa erabiltzen duten emakume askok bildurra pasatzen dute goiz partean eta ilunkaran.
7.- Urruti eta isolatuta dagoenez komunak drogatzeko erabiltzen dira
8.- Ziorlako bidaiarientzat irisgarritasun arazoak: autobusetik jaitsi, errepidea gurutzatu, Erreka gaineko oinezkoendako zubia pasatu eta gero poligono industrial ilun eta erdi hutsik batetik kilometro erdiko ibilbidea egin. (genero ikuspuntutik ez da bat ere gomendagarria)
9.- Unibertsitateko ikasleentzat ere oso urruti dago, bai unibertsitatetik eta bai euren bizilekuetatik ere. Bi kilometroko ibilbidea egin beharko dute askok eta askok euren ekipajeekin igande gauetan.
10.- Hain urruti dagoenez Uribarri, Erguin; Olan eko biztanleek ia ez dute erabiltzen autobus geltoki hau.
11.- Euria eta haizea egiten duenean oso gogorra egiten zaigu bertako itxaronaldia.
12.- Oinez joaten direnendako bide luzea izateaz gain trabaz beteriko ibilbideak daude. Adibiderako: Ferixalekuko igogailutik Zaldusperaino oinez joateko 10 oztopo gainditu behar ditu oinezkoak: Aparkalekuko sarrera/ irteerak, garajeak, errepideak eta bidegorriak..
13.- Ez da egia irisgarritasun errazeko kokapena denik, inondik inora. Bertara iristeko oinezkoak behinik behin traba pilo bat gainditu edo gurutzatu behar dituzte: errepideak, garajeko edo aparkalekuetako sarrera-irteerak, bidegorriak ...
14.- Ez dauka loturarik, konexiorik, bidegorri sarearekin.
15.- Taxi geltokirik ere ez bere inguruan.
16.- Ez da leku erreferentziala. Herria ezagutzen ez duen bidaiari bat bertan jaisten bada ...ez dago ezer.
17.- Kokapen horretan ez dago ia zerbitzurik.
18.- Ospitalaren garapena hipotekatzen du.
19.- Arrasatera erostera autobusean etortzen direnei ez die inolako erraztasunik ematen.

**Autobusendako eta txoferrendako**

1.- Darsena edo autobus geraleku gutxi ditu, sei bakarrik.
2.- Diseinatuta dagoen moduan maniobrak oso konplikatuak dira.
3.- Autobus sarrera- irteeretan errepideko gainerako trafikoa oztopatu egiten da.
4.- Arrasatetik Gasteizera zuzenean doazen autobusek ibilbide erabat absurdoa eta jasangarritasunaren kontrakoa egin behar izaten dituzte : Autopistatik Epelen (Aranguren, Etxezarreta?) irten Zalpusperaino etorri eta berriro itzuli Gasteizko norabidea hartzeko.

**Ospitalerako onurak bertatik kenduko balute**

1.- Autobus geltoki hau bertatik kenduko balute, posible izango zen ospitaleko langile eta erabiltzaileentzako aparkaleku bat atontzea.
2.- Aparkaleku hau hau erosoagoa izango litzateke. Ez dago errepidea gurutzatu beharrik eta alde hortatik seguruagoa da.
3.- Etorkizunerako ospitala handitu beharra baldin badago ere komeni da geltokia bertatik kentzea.
4.- Beraz etorkizunera begira komeni da geltoki hori ahalik eta azkarren bertatik kentzea, Ospitalaren etorkizuna hipotekatu barik.
5.- Duda barik Ospitaleko pazienteek lasaitasuna irabaziko lukete.
6.- Eskualdeko Ospital hau erabat estrategikoa da herriaren garapenerako, ez diezaiogun oztopo gehiago jarri.

## 3.- Proposamen berria: Forum dendaren ostekoa edo Roneokoa

- FORUM dendaren osteko geltokia

Askok pentsatuko dute leku honetan ez dagoela nahiko espazio autobus geltoki bat kokatzeko.

Baina posible da bertan autobus geltoki bat jartzea.

### NOLA DISEINATU GELTOKI HAU?

Eragiketa txiki batzuk egin beharko dira geltoki eroso bat lortzeko. Funtsean planteatzen dut orain dagoen geralekua handitzea. Aldaketa bi baino ez dira behar autobus geltoki bat bertan jartzeko.

1- Laubideko parkineko sarrera aldatu eta Garibai kaleko hasierara eraman.

- Horrela irabazten den espazioa gehitu oraingo autobusen geralekuari.
- Horrela lortuko genuke lau edo bost autobusendako geralekua, denak ilaran .
- Parkineko sarrera hori kenduta autoak eta autobusak ez zioten elkarri traba egingo.
- Autobusak ilaran egonda, maniobrak, sarrera- irteerak oso errazak dira.

Gasteizera, Aramaiora, Aretxabaleta eta Eskoriatzako autobusak geraleku horretan egingo lukete geldialdia.

- Beraz Arrasatetik abiatzen diren autobus guzti horientzat konplikazio gutxiagoko ibilbidea.

2.- Etxaluzeko biribiletik Mankomunitateko biribilera doan auto trafikoa Zerrajera kaletik bideratu

- Etxaluzetik Mankomunitateko tarte hori autobusendako bakarrik utzi.
- Beraz Nafarroa Etorbideko auto trafikoa norabide bakarrera murriztu.
- Espaloi horren ondoan kokatuko lirateke Donostiara, Bergarara, Oñatira, Bilbora ...doazen autobusak. Autobus hauek ere ilaran egongo lirateke.

**<u>KOKAPEN HONEN ABANTAILAK</u>** (Zalduspekoak ematen ez dituenak)

1.- Geltoki hau Arrasateko erdigunean dago, zentralitate horrek eskaintzen duen onura guztiekin)

2.- Geltoki hau demokratikoagoa da: bertara iristeko jende gehiagori erraztasunak ematen dizkio.- Kokapen hau Arrasateko bezino gehienen bizilekutik hurrago dago. Kalean bertan dago, auzo populatuenak ere hurrean, hurbil.

3.- Pentsa dezakegu auzo konkretu batzuk Zalduspekoa gertuagoa daukatela baina ez da horrela, adibidez Ferixalekuko igogailuen erabiltzaleentzat ere Roneokoa hurbilago dago eta baita Aldaigain eta Aldaiko bizilagun gehienak ere. Ertzaintzaren komisaldegi pareko eskaileretatik Roneoko geltokira Zalduspekora baino hiru minutu gutxiago behar dira.

4.- Kaleko, San Andreseko, Uribarriko, Erguingo, Polo Garaiako, Gorostizako (Malbinak), Unibertsitateko autobus erabiltzaileentzat askoz ere erosoago izango litzateke.

5.- Geltokia leku zentralean egonda seguruagoa da, goizeko zein gaueko ordu txikitan eta genero ikuspegitik ere egokiagoa da Zalduspekoa baino. Jende gehiena, baita emakumeak ere lasaiago egongo lirateke

6.- Arrasateko merkataritzarako, aisialdirako, aukera gehiago ematen du, eragin positiboa izango luke herria dinamizatzen, Zalduspeko kokalekuak ez dio ezer aportatzen herriari. Kokapen hau Arrasateko bizitza ekonomikorako estrategikoa da Zalduspekoa ordea guztiz kontrakoa, antiestrategikoa.

-7.- Autobus geltokira iristeko erabiltzaile gehienok egin behar izaten ditugun ibilaldiak asko murriztuko lirateke eta beraz herri dinamikoagoa lortuko genuke.

8.- Oinezkoen irisgarritasuna : Bertara iristeko ibilbideak, neurri handi batean, oinezkoen bideetatik egin daitezke, Zalduspekora iristeko baino traba gutxiago daude: errepide, bidegorri, garaje sarerra eta irteera gutxiago gurutzatu behar dira.

9.- Konponbide hau Zalduspekoa baino merkeagoa da dudarik gabe.

10..- Jasangarriagoa: geltoki hau egiteak ia ez du eskatzen eraikuntza lan garesti eta konplikaturik, ez da lur mugimendurik ere: leku batean kentzen den lurra beste zuloa betetzeko erabiliko litzateke. CO2 igorpenak dezente txikiagoak.

11.- Zalduspeko balizko autobus geltokian eraiki nahi duten "aparkaleku disuasorioa" egin beharrik ez dago, bertan dago Laubideko parkina 80 plazakin.

12.- Nafarroa Etorbideko bizilagunen egoera ere hobetu egingo litzateke, ze autobus gutxi batzuk gehiago pasatuko lirateke baina autoen trafikoa izugarri gutxitu.

13.- Erabiltzaileendako askoz errazago izango litzateke autobusen norabidea asmatzea: Erreka ondokoak iparralderuntz eta pareko espaloikoak hegoalderuntz.

-.14.- Autobus geltoki honetan itxoinaldiak erosoagoak egiteko komuna eta markesina bat jarri daitezke.

15.- Norabide batean zein bestean Zalduspen baino autobus gehiagorako lekua dago,

16.- Zalduspeko geltokiak okupatzen duen lekuan Ospitalendako aparkaleku pilo bat jarri daitezke. Gainera parking honek beste abantaila pare bat izango ditu: gertuago egoteaz gain errepidea pasatu beharrik ez dagoe

17.- Ez da egia kokapen honekin 200 autobus baino gehiago sartuko direla Mondragoeko "Zentroan" sartuko direnik. Guztira 78 autobus gehiagok egingo lukete geldialdia bertan. Kokapen

10..- Jasangarriagoa: geltoki hau egiteak ia ez du eskatzen eraikuntza lan garesti eta konplikaturik, ez da lur mugimendurik ere: leku batean kentzen den lurra beste zuloa betetzeko erabiliko litzateke. CO2 igorpenak dezente txikiagoak.

11.- Zalduspeko balizko autobus geltokian eraiki nahi duten "aparkaleku disuasorioa" egin beharrik ez dago, bertan dago Laubideko parkina 80 plazakin.

12.- Nafarroa Etorbideko bizilagunen egoera ere hobetu egingo litzateke, ze autobus gutxi batzuk gehiago pasatuko lirateke baina autoen trafikoa izugarri gutxitu.

13.- Erabiltzaileendako askoz errazago izango litzateke autobusen norabidea asmatzea: Erreka ondokoak iparralderuntz eta pareko espaloikoak hegoalderuntz.

-14.- Autobus geltoki honetan itxoinaldiak erosoagoak egiteko komuna eta markesina bat jarri daitezke.

15.- Norabide batean zein bestean Zalduspen baino autobus gehiagorako lekua dago,

.16.- Kokapen hau zentrotik gertu dago, baina zentroa ez du ikutzen, tangentziala da. Ez da gehituko inondik inora kutsadura. Zalduspen ostera autobusek egiten dituzten maniobra konplikatuek ez bezala.

18.- Askoz ere erabiltzaile gehiago izango dituenez, autoen erabilera zeharo murriztuko litzateke.

19.- Posible da Laubide Plaza ondoan dauden berdeguneak batu eta jardin handiagoa lortzea, eta horrela Arrasate berdeagoa eta alaiagoa izango litzateke.

20.- Mugikortasun plana egin zuen enpresaren aholkua beteko genuke: Autobus geltokiak leku zentrala behar zuela alegia, zerbitzu osoagoa eskaini ahal izateko

21.- Bidegorri sarearekin konektatuta dago

22.- Taxi geltokia ere hurrin barik dago.

23.- Lurraldebuseko txartela edo Mugikoa kargatzeko estankoa ere 100 metrora dago.

24.- Bere inguruan mota askotako zerbitzuak daude: Bankuak, kutxazainak, tabernak, hotelak, Udaletxea bera ere bai.

25.- Kokapen erreferentziala da: Arrasate ezagutzen ez duen pertsona bati azalpenak ematea errazagoa da. Bertatik samurragoa da jendea Herriko leku askotara bideratzea: Udaletxera, frontoira, EPAra, Arizmendira, Unibertsitatera, San Andresera ...

26.-- Zerrajera kaleko bezinoentzat ere konponbide hau ez zen deserosoa izango, errepidea euren etxeetatik urrutitxo baitago eta gainera bizilekuak lorategi tarte batekin babestuta daude.Araba Etorbideko biztanleentzat errepidea hurbilago dago.

27.- Laburtzeko:

- Ospitalerako onurak

- Herrirako eta bidaiarientzako ere bai.

**MOCIÓN PARA UBICAR LA ESTACIÓN CENTRAL DE AUTOBUSES DE ARRASATE EN RONEO**

**<u>1.- Los resultados de la consulta no pueden ser tenidos en cuenta.</u>**

Del 11 al 16 de noviembre se realizó una consulta para seleccionar la ubicación de la estación de autobuses en Arrasate. El Ayuntamiento ofreció dos opciones de localización: Zalduspe y Laubide. La de Laubide fue presentada por EhBildu en una campaña electoral y la de Zaldupe como solución provisional de María Ubarretxena cuando la calle Garibai se convirtió en "ecobulevar". Creo que la ubicación exacta de Laubide sería una zona verde frente a Kontzeziño. También llamaron a la estación: *<u>Mondraupe</u>*.

Sin embargo, cuando comenzó la consulta EhBildu, rechazando su proyecto inicial, se mostró favorable a Zalduspe. Puede decirse, por tanto, que todos los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento estaban a favor de Zalduspe, que han impulsado unánimemente la opción de Zalduspe.

Así, en esta situación rara, muchos ciudadanos no entendían por qué debían ir a votar nada: parecía que todo estaba decidido.

Sin embargo, a lo largo de la citada semana algunos ciudadanos han ido a votar, pero estos ciudadanos no han llegado al 30%, un total de 4268 habitantes. Tampoco llega al 24% del censo. Es cierto que la opción de Zaldupe ha recibido el 75% de los votos, pero es evidente que con esta limitada participación la opción de Zalduspe carece de legitimidad, al no cumplir el primer requisito impuesto por el propio Ayuntamiento de Arrasate.

O dicho de otra manera, esas 3159 personas que han votado a favor de Zaldupe no pueden condicionar nuestro derecho a ser dignas, cómodas y útiles en un servicio de autobús.

Para destacar otros elementos negativos de esta consulta, creo que el Ayuntamiento destacó los aspectos positivos de Zalduspe y los negativos de Laubide. Para subrayar los aspectos positivos de Zalduspe señalaban la posibilidad de coger autobuses de línea larga en Zalduspe. Pero el autobús de ALSA que va a Madrid se coge en la marquesina de Eroski.

Tampoco hemos sabido cuánto dinero se va a gastar en cada opción.

Y para terminar creo que si el Ayuntamiento quiere ser honesto no tiene que aceptar sin más la opción de Zalduspe. Con esta limitada participación, la elección de Zaldupe no puede ser vinculante.

**<u>2.- Deficiencias de la estación de Zalduspe</u>**

**<u>Para los usuarios</u>**

1.- Lejos para la mayoría de la población de Arrasate.

2.- No es cierto en absoluto lo que dice el promotor de esta "solución": "es que en Arrasate no hay distancias", las hay y grandes. Recorrido de al menos un cuarto de hora desde San Andrés y más de media hora desde Uribe.

3.- Se trata de un sitio apartado, al lado del cual sólo se encuentra el hospital.

4.- Es una zona intimidatoria por ser un lugar aislado a primera hora de la mañana y última de la noche.

5.- Como está lejos y es un sitio inadecuado, en más de una ocasión se ve a los padres o familiares que van con el coche para recoger a su familiar o amigo.

6.- No poder acertar con sitio más inadecuado desde el punto de vista del género: muchas mujeres usuarias del autobús pasan miedo a las mañanas y al anochecer.

7.- Como está lejos y aislado, los retretes se utilizan para drogar.

8.- Problemas de accesibilidad para los viajeros de Ziorla: descender del autobús, cruzar la carretera, pasar el puente por la zona peatonal sobre el río y después recorrer un recorrido de medio kilómetro desde un polígono industrial oscuro y medio vacío (nada recomendable desde el punto de vista del género).

9.- También está muy lejos para los universitarios, tanto de la universidad como de sus lugares de residencia. Muchos tendrán que hacer con sus equipajes los domingos por la noche dos kilómetros de recorrido.

10.- Al estar tan lejos los residentes de Uribarri, Erguin, Olan apenas utiliza esta estación de autobuses.

11.- Cuando llueve y hace viento se nos hace muy duro el tiempo de espera.

12.- Además de tener un largo recorrido para quienes van a pie, existen itinerarios llenos de trabas. Por ejemplo, para ir caminando desde el ascensor de Ferixaleku hasta Zalduspe hay que salvar 10 obstáculos: entradas/salidas del aparcamiento, garajes, carreteras y bidegorris...

13.- En ninguna manera es cierto que se trate de un emplazamiento de fácil accesibilidad. Para acceder al mismo, al menos los peatones deben salvar o cruzar, un montón de obstáculos: carreteras, entradas-salidas de garaje o aparcamientos, carriles bici...

14.- No tiene conexión con la red de bidegorris.

15.- Tampoco existe parada de taxi en su entorno.

16.- No es un lugar referencial. Si se baja ahí un pasajero que no conoce el pueblo... no hay nada.

17.- En esta ubicación prácticamente no existen servicios.

18.- Hipoteca el desarrollo del hospital.

19.- No da ninguna facilidad a los que vienen en autobús a comprar a Arrasate.

*Para los autobuses y los choferes*

1.- Las dársenas o paradas de autobús son escasas, sólo seis.

2.- Las maniobras tal y como está diseñada son muy complicadas.

3.- En las entradas y salidas de autobuses, se obstaculiza el tráfico de carretera.

4.- Los autobuses que se desplazan directamente desde Arrasate hasta Vitoria-Gasteiz tienen que hacer un recorrido totalmente absurdo y contrario a la sostenibilidad: salir de la autopista en Epele (Aranguren, Etxezarreta?), ir hasta Zalduspe y regresar para tomar la dirección de Vitoria-Gasteiz.

**Beneficios para el hospital si lo retiran de ahí**

1.- La supresión de esta estación de autobuses, posibilitaría la organización de un aparcamiento para el personal y usuarios del hospital.

2.- Este aparcamiento sería más cómodo. No es necesario cruzar la carretera y así sería más seguro.

3.- En caso de necesidad futura de ampliación del hospital, sería conveniente retirar la estación.

4.- Por lo tanto, de cara al futuro es conveniente retirar dicha estación lo antes posible, sin hipotecar el futuro del hospital.

5.- Sin duda los pacientes del hospital ganarían tranquilidad.

6.- Este hospital comarcal es estratégico para el desarrollo del municipio, no le pongamos más obstáculos.

**3.- Nueva propuesta después de la tienda Forum o de Roneo**

Parada tras la tienda FORUM.

Muchos pensarán que en esta zona no hay espacio suficiente para ubicar una estación de autobuses.

Pero es posible instalar una estación de autobuses.

**¿CÓMO DISEÑAR ESTA ESTACIÓN?**

Se deberán realizar pequeñas operaciones para conseguir una estación cómoda. Planteo en esencia la ampliación de la actual parada. Sólo son necesarios dos cambios para la instalación de una estación de autobuses.

1.- Modificar el acceso al parking del Laubide y trasladarlo al inicio de la calle Garibai.

- Añadir el espacio que así gane a la parada actual de autobuses.

- Así conseguiríamos una parada de cuatro o cinco autobuses, todos en línea.

- Sin esta entrada de parking los coches y autobuses no se entorpecían mutuamente.

- Con los autobuses en línea, las maniobras, las entradas y salidas son muy sencillas.

Los autobuses de Vitoria-Gasteiz, Aramaio, Aretxabaleta y Eskoriatza realizarían la parada en esta parada.

- Una ruta por tanto menos complicada para todos esos autobuses que parten de Arrasate.

2.- Canalizar el tráfico de vehículos desde la rotonda de Etxaluze hasta la rotonda de la Mancomunidad por la calle Zerrajera.

- Dejar este tramo desde la Mancomunidad a Etxaluze solo para el autobús.

- Por lo tanto restringir el tráfico de coches de Nafarroa etorbidea a una sola dirección.

- Junto a esta acera se situarían los autobuses que van a Donostia, Bergara, Oñati, Bilbao... Estos autobuses también estarían en línea.

## VENTAJAS DE ESTA UBICACIÓN (no proporcionadas por Zaldupe)

1.- Esta estación se encuentra situada en el centro de Arrasate, con todos los beneficios que ofrece esta centralidad.

2.- Esta estación es más democrática, facilita el acceso a más personas. Esta ubicación se encuentra más próxima al lugar de residencia de la mayoría de los vecinos de Arrasate. Se encuentra en la calle, cerca de los barrios más poblados.

3.- Podemos pensar que algunos barrios concretos tienen más cerca el de Zaldupe pero no es así, por ejemplo, el de Roneo también está más cerca para los usuarios de los ascensores de Ferixaleku, incluso, para la mayoría de los vecinos de Aldaigain y Aldai. Desde las escaleras situadas frente a la comisaría de la Ertzaintza hasta la estación de Roneo se tardan tres minutos menos que a la de Zaldupe.

4.- Sería mucho más cómodo para los usuarios de autobuses de la calle, San Andrés, Uribarri, Erguin, Polo Garaia, Gorostiza (Malbinas), universidad.

5.- La ubicación de la estación en un lugar central es más segura, tanto primera hora de la mañana como a últimas de la noche y también es más adecuada desde el punto de vista de género que la de Zaldupe. La mayoría de la gente, incluso las mujeres, estarían más tranquilas.

6.- La vida comercial de Arrasate, de ocio, ofrece más oportunidades, tendría un impacto positivo en la dinamización del pueblo, el asentamiento de Zalduspe no aporta nada

al pueblo. Esta ubicación es estratégica para la vida económica de Mondragón, en cambio la de Zalduspe es totalmente contraria, antiestratégica.

7.- Los recorridos que tenemos que realizar la mayoría de los usuarios hasta llegar a la estación de autobuses se reducirían mucho, por lo que conseguiríamos una localidad más dinámica.

8.- Accesibilidad peatonal: los itinerarios de acceso al mismo se pueden realizar, en gran medida, por caminos peatonales, con menos obstáculos que los de Zaldupe: hay que cruzar menos carreteras, bidegorris, entradas y salidas de garaje.

9.- Esta solución es sin duda más barata que la de Zaldupe.

10- Más sostenible: la ejecución de esta estación apenas requiere trabajos de construcción costosos y complicados, no hay movimiento de tierras: la tierra que se quita en un lugar se utilizaría para llenar el agujero del otro. Las emisiones de $CO_2$ son sensiblemente menores.

11.- No es necesario ejecutar el "aparcamiento disuasorio" que se pretende construir en la posible estación de autobuses de Zalduspe, ya que tenemos el parking de Laubide con 80 plazas.

12.- También mejoraría la situación de los vecinos de Nafarroa etorbide, pues pasarían unos pocos autobuses más, pero disminuiría drásticamente el tráfico de coches.

13.- Acertar la dirección de los autobuses sería mucho más fácil para los usuarios: los que están junto el río hacia el norte y los de la acera de enfrente hacia el sur.

14.- En esta estación de autobuses se puede instalar un aseo y una marquesina para hacer las esperas más cómodas.

15.- En ambos sentidos hay espacio para más autobuses que en Zalduspe.

16.- En el lugar que ocupa la estación de Zalduspe se pueden instalar un montón de aparcamientos para el hospital. Además, este parking tendrá otro par de ventajas: además de estar más cerca, no hace falta cruzar la carretera.

17.- No es cierto que con esta ubicación más de 200 autobuses entrarán en el "centro" de Mondragon. Un total de 78 autobuses más harían parada en el mismo.

18.- Esta ubicación se encuentra próxima al centro, pero no toca el centro, es tangencial. En ningún caso aumentará la contaminación. A diferencia de las complicadas maniobras que realizan los autobuses en Zalduspe.

19.- Al tener muchos más usuarios, el uso de los coches se vería muy restringido.

20.- Es posible unir las zonas verdes adyacentes a la plaza de Laubide y conseguir un mayor jardín, lo que permitiría a Arrasate ser más verde y alegre.

21.- Seguiríamos el consejo de vuestra empresa que elaboró el plan de movilidad: la estación de autobuses necesita un espacio central.

22.- Esta conectada con la red de bidegorris.

23.- La parada de taxi también no está lejos.

24.- La tarjeta de Lurraldebus o el estanco de carga de Mugi también está a 100 metros.

25.- En su entorno existen servicios de todo tipo: bancos, cajeros, bares, hoteles, incluso el propio ayuntamiento.

26.- Ubicación referencial: es más fácil dar explicaciones a una persona que no conoce Arrasate. De ahí es más fácil que la gente se dirija a muchos lugares del pueblo: al Ayuntamiento, al frontón, a la EPA, a Arizmendi, a la universidad, a San Andrés,...

27.- Esta solución tampoco resultaría incómoda para los vecinos de Zerrajera kalea, ya que la carretera está muy alejada de sus casas y además las viviendas están protegidas con un tramo de jardín. La carretera está más cercana a la población de Araba Etorbidea.

28.- Para resumir:

- Es beneficio para el hospital

- También para la localidad y los viajeros.